

# AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



## BILDURRARI BILDUR

Kari eiza-zalea zan, baiña zoritxarrekoa. Geienetan esku-utsean etorten zan etxera eta izekaz artzen eben.

—Ba-dakizu zergaitik ez dozun eizatzen ezer? Basora sartzeko bildur zaralako!

Basoan asko ibilli zan egun betan gosetu egin zan eta baserri bat ikusi eban urrean:

—Janari bat eskatu bear dot or!

Jaten eta edaten ondo emon eutsoen eta gosea kendu ebanean auxe pentsau eban:

—Emen ondo esaten dauste eta zertarako joango naz beste leku batera?

Antxe geratzea erabagi eban. Erritarrai be ondo eritxi eutsen eta solo bat emon eutsoen lantzeko. Txabola bat egin eta ezkondu be egin zan.

Soloan lanik ez eukan egun baten, bere emazteari esan eutson:

—Denpora asko da eizan egin ez dodala, basora joan eta eume bat ekarri bear dot.

Artu eban ugartuta egoan lantzea eta basora joan zan. Ez ekian an basa-pizti asko egoanik.

Barru-barrura sartu zan, errastu batzui jarraitzen. Abarrak apurtuta ikusi ebazan eta konturatu zan elefanteak ebiltzala.

Bat-batean leoi eder bat urreratu jakon, bere ondoan geratu zan eta itxura baten luzaro itxaronda egoan. Basoko erregeak agoa idegi eban eta orroa aundiak egin ebazan, ain aundiak ze, orriak zugatzetatik jausten asi ziran.

Bildurtu egin zan Kari gure eiztaria eta ez ekian nondik iges egin. Inguruak ondo begiratu eta ekuin-aldean ikusi eban sasitza bat. Sartu zan onen barrura eta arantzak zulatu eutsoen narrua, baiña miña baiño aundiagoa zan bildurra.

Leoia urreratu zan sasitzara eta arantza zorrotzak eta aundiak ikusita, jesarri eta itxaroten geratu zan. Iru egun an egin eta goseak eraginda, joan egin zan.

Bitartean baserrian konturatu ziran eiztaria ez zala etxera biurtu eta Sagu izeneko eiztari ospetsua bialdu eben billa.

Sagu sartu zan basora eta sasitza arantzatsuaren ondotik igaro zan.

—Nor da? —iñoan sasitzatik abots batek

—Neu naz!

—Baiña nor zaza zu?

—Ni Sagu naz eta basoan dabillen gizon baten billa nabil.

—Neu naz gizon ori! Lagundu egistazu sasitzatik urteten!

—Sartu zelan egin ziñan ba?

—Bildurrak eraginda!

—Ba, neuk urten eragingo dautzut.

Sagu´k bedar zikua billatu eban eta sasitzearen inguruan ipiñi eta sua emon eutson. Kari, bere burua su artean ikusita, sartu zan sasitza eta urten eban.

Egia da. Bildurrak beste bildur bat kendu leike.

✠ OLAZAR´tar Martin´ek